


6 mantangorri



AZOKA



LIBRUAK

**Izenburuak:** 'Egipto' eta 'Mendebaldeko konkista'.**Testua eta marrazkiak:** Hainbaten artean. **Itzulpena:** Manu Arregi eta J. M. Olaizola *Txitiku*, hurrenez hurren. **Orrialde kopurua:** 32na orrialde, koloretan. **Argitaletxea:** Ttartalo.

Itziar Irastorza

TTARTALO ARGITALETXEKO ARGITARATZAILEA

«Bilduma berezia da, dagoeneko gure katalogoan erreferentea bihurtzen ari da»

Aspaldiko garaietan, zibilizazio ugari bizi izan ziren. Egiptokoa eta Ipar Amerikako Mendebaldean bizi ziren indiarrek dira haietako bi. Nork bere ohiturak, sinesmenak eta bizitzeko moduak zituzten. Garai haietara bidaiatzeko eta zibilizazio haien ezagutzeko aukera ematen dute liburu horiek. Testu laburrez eta marrazki ikusgarriaz apainduak daude liburuak.

Aspaldiko garaietara bidaia egiteko aukera du irakurleak, ezta? Nora?

Egiptora eta Ipar Amerikara joango gara. Bi libruetako batek duela sei mila urte inguru Egipto nola sortu zen eta hiru mila urtez nolako bilakaera izan zuen azaltzen digu. Bigarren libruan, berriz, XIX. mendea-



ren hasieran Ipar Amerikako Mendebaldean bizi ziren indiarrek pairatu zuten konkistaren historia gororren berri jasoko dugu.

Aspaldiko zibilizazio edo giza taldeak gertutik ezagutzeko liburuak dira.

Bai, gaztetxoei oso erakargarriak egingo zaizkien bi zibilizazio garrantzitsu aurkezten dira. Batetik, guztiz liluragarria den faraoien garaiko Egipto; munduko estaturik zaharrenetarikoa izateaz gain, oso zibilizazio aurreratua eta aberatsa izan zena. Bestetik, munduko giza talde miresgarrienetako bat, Ameriketako indiarrek; naturarekin eta haien sinesmenekin orekan bizi eta kultura eta tradizio oparoak ziuden herri adoretsua.

Zein informazio ematen da haiei buruz?

Informazio ugaria eta interesgarria ematen da: herri haien sorrera, lehenengo biztanleen etorrera, haien bizimodua, an-

tolaketa politikoa eta soziala, ohiturak, erlijioa eta sinesmenak, kultura, artea, eraikuntza, naturarekin duten harremana... Mendebaldearen konkistaren kasuan, Europatik joandako milaka lagunek indiarren lurraldeak indarrez bereganatu eta nola kolonizatu zituzten kontatzen da. Konkistak indiar herrian eragin zuen minaren eta kaltearen berri ematen digu liburuak.

Informazioa aurkezteko, askotariko elementuez baliatu da egilea.

Bilduma honen ezaugarri nagusietako bat diseinua da. Oso diseinu zaindua dauka: ilustrazio originalak, orri hegaldun ikusgarriak eta informazioaren antolaketa txukuna. Akuarelaz egingo marrazkiak, museoetan gordetzen diren hainbat artelanen, tresnaren eta dokumentuen irudi eta argazkiekin uztartzen dira orrialdeak hornitzeko. Horrek guztiak testuak ulerterra-zagoak egiten ditu, eta irakurketa, errazagoa eta atsegina goa.

Edozein ikastetxean ikasmaterial gisa erabil daitezkeen liburuak dira, ezta?

Bai, Ezagutza Liburuak atalean kokatzen den materiala da, eta oso egokia izan daiteke eskolan lantzen diren zenbait gaitan sakontzeko eta haiei buruzko informazio gehigarria eskuratzeko. Bilduma honek, irakurketaz eta jakintzaz edonork gozatzeko moduko irakurgaiak proposatzeaz gain, eskoian zein etxeen ikasleek egin beharreko lanak burutzeko material osagarria eskaintzen du.

Bilduma osatzen joateko asmorik ba al duzue?

Oraintxe bertan titulu pare bat aztertzen ari gara, eta litekeena da haien argitarra ematea datorren urtean. Bilduma berezia da, dagoeneko gure katalogoan erreferentea bihurtzen ari da, eta mereziko luke jarraipena ematea, zalantzarak gabe.

